

Musikaria, entzunez gozatu

Musika Eskolak
antolatu du ▶ 2



Ekitaldi ugari Anoetan Gaztetxeak bost urte dituela gogoratzeko

KULTURA ▶ Afaria, antzerkia eta Nekin eta Izeba
Pilarren ilobak taldeen kontzertua izango dira gaur ▶ 5



Gaztetxearen urtemugako ekitaldiei hasiera emateko txupinazoa bota zuten atzo arratsaldean. DANI GIBELALDE



GARAZI AZKUE

Amodiozko gutun onena, Ainara Muñozena

VILLABONA ▶ Guztira 24 lan aurkeztu dira
gutun lehiaketan; Esti Amenabarrok jaso du
herriko gutun onenaren saria ▶ 4

IBARRA ▶

Jaietarako bozeto lehiaketa martxan da

Ekainaren 14an
amaituko da epea ▶ 6

LEITZA ▶

Musikako ikasleek kontzertuak emanen dituzte bost herritan

Mendialdeko bost institututako 617
ikaslek hartuko dute parte ▶ 7



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiarekin

Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 9ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA





Zaharren egoitzakoak, azalpen eske Honekin ileapaindegiairen saria

EKONOMIA ▶ Euskal Herriko zaharren egoitzako langileak haserre eta harrututa daude Foru Aldundiarekin, lantokian izango dituzten aldaketengatik. Langileek esandakoaren arabera, sindikatuen bidez jaso dute informazioa, eta Aldundiak ez die ezer esan. «Langileok ez dugu izango ez leku ez epe finkorik gure lanean; gainera, gurean ezin izango du inork gehiago sartu; eta, bestalde, zentroan lanean ari diren hainbat enpresaren betebeharrak lehiaketara ateratu dituzte. Langileok eta zentroan senitartekoak dituztenek informazioa behar dugu; hori da gure eskaera». Gaur informazioa banatuko dute jendartearen, Euskal Herria plazan. LEIRE MONTES

HITZA-REKIN ELKARLANEAN ▶ Lurdes Jauregi tolosarrak irabazi du Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hrrzak, Honekin ileapaindegiairekin elkarlanean, harpidedunen artean zozketatutako saria. Hain zuzen ere, Honekin-ek oparitutako ileapaindegiko zerbitzu osoa, ilearen tratamendurako bi produktu, eta solarium-eko hamar saioko bonoa jaso ditu irabazleak. Argazkian, Honekin ileapaindegiko Aitor Odriozola, Lurdes Jauregiri saria ematen. Laster Tolosako Kimetz arropa dendak eskainitako jantziak zozketatuko ditu Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hrrzak harpidedun guztien artean. DANI GIBELALDE

MUSIKA ▶

Entzumenaren gozamenerako

Gaur hasita eta datorren larunbata arte X. Musikaria antolatu du Eduardo Mokoroa Musika Eskolak; gaur, Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da

LEIRE MONTES

Musika gustuko dutenek ezinbesteko hitzordua izango dute egunero. Gaurtik datorren larunbata bitarte X. Musikaria antolatu baitu Eduardo Mokoroa Musika Eskolak. Edizio berezia izango da, gainera, hamar urte betetzen baitu Musika-riak.

Tolosako Musika Bandak

gaur, 19:30ean, Plaza Berrian eskainiko duen kontzertuak zabalduko du aurtengo topaketaren egitaraua. Lan hauek interpretatuko dituzte herriko musikariek: *La kermes de las vistillas* (Jose M. Martin Domingo), *El Carnaval romano* (Berlioz), moldaketak: G. Meister), *Mary Poppins* (R.M.Sherman), *Estampas andaluzas* (Andres Piguero), eta *El camino real*

(Reed). Enrike Arostegi Eguzkiza zuzendari ordearen esanetara ariko dira bandakoak.

Astelehenean, berriz, Donostiako Tronpa Laukotearen doinuak izango dira entzungai Musika Eskolako areto nagusian (Pablo Gorosabel), Xabier Sarasak, Karl Pipkinek, Mario Telentik eta Salvador Tudelak, Euskadiko Orkestra Sinfoniko-ko tronpa-jole titularrek, musi-

karen historian egingo dute bigaia; Barroko estilotik hasi eta gaur egungo musikako doinuak joko dituzte, eta aipamen berezia egingo diote jazz estiloari.

Musika Eskolako zein kanpoko musikariek ekarriko dute zer entzunik, datorren larubata bitarte. Herri musika tresnen topaketa egingo dute egun horretan. Goizean kalejiran ariko dira musikariak, eta arratsaldean Pablo Gorosabelgo entzutegian eskainiko dute saioa.

Aurrematrikula zabalik

Era berean, 2004-2005 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea zabalik da Eduardo Mokoroa Musika Eskolan. Bertan ikasle izan nahi dutenek asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara, eman dezakete izena Pablo Gorosabelen (943 65 15 93). Hilaren 31 izango da izena emateko azken eguna.

EGITARAUA ▶

GAUR

Tolosako Musika Banda. 19:30ean, Berdura plazan.

ETZI

Tronpa laukotea. 19:00etan, Musika Eskolako areto nagusian. Kutxak finantziazutako kontzertua.

HILAREN 25A, ASTEARTEA

Perkusio taldea. 19:00etan, Musika Eskolako areto nagusian.

HILAREN 26A, ASTEAZKENA

Mikel Azpiroz taldea. 19:00etan, Musika Eskolako areto nagusian.

HILAREN 27A, OSTEGUNA

Elena Orkoien. 19:00etan, Musika Eskolako areto nagusian. Kantu emanaldia.

HILAREN 28A, OSTIRALA

Artizar orkestra. 20:00etan, Musika Eskolako areto nagusian.

HILAREN 29A, LARUNBATA

Herri musika tresnen topaketa. Goizean, kalean zehar. 20:00etan, Musika Eskolako areto nagusian.

aranburu jauregia
T o l o s a

Faustino Aranzabal
Pintura
maiatzaren 14tik uztailaren 3ra

Angel Cuervo
Argazkiak - Mundu bete kolore
maiatzaren 7tik ekainaren 12ra

Ordutegia: jaiegunetan eta asteleheneetan izan ezik, 17.30 - 20.30
Sta. Maria plaza, 4. Tel.: (943) 67 48 11. Fax: (943) 67 26 22

ARAMBURU

Salgai (Ereara), Duplex-a salgai
Ereara, Etean-eremua kanain.
Alokatzerako (Salgai). Bi logeak di-
tuen apartamentua. Igortasun-
erria. Inbentarioa gertu.
Alokatzerako (Tolosa). Ondo lau-
zela egokitua dagoren kokatu alkat-
zeren da Laskorain kalean.
Alokatzerako (Tolosa). 140m² ko
bulegoa Laskorain kalean.
Alokatzerako (Tolosa). Garaie Lasko-
rain kalean. Garaie irekia.
Alokatzerako (Ereara). Garaie Mi-
kel Gal Ageru Espantatzen.
943 65 17 13 / 677 460 916

Beti alai
jatekoa

**Garaian
garaiko janariak
Arraikiatan berezia**



© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

GUTUN@K 

AHTren saioen balantzea

Abiadura Handiko Trenaz (AHT) maiatzaren 11, 12 eta 14an antolatuta ditugun jardunaldien balantzea eta ondorio gisa gure gogoetak emana ondoko puntuetan laburbildu nahi ditugu.

1. Lehenik, Tolosaldeko EAJ eta PSE kritikatu nahi ditugu, maiatzaren 14an, Abiadura Handiko Trenaren inguruan antolatutako eztabaidan ez dutelako egon nahi izan. Gertaera hau oso larria da. Elkarlana osatzen dugunok uste dugu herritarrok informazio jasotzeko eskubidea dugula, horixe baita erabakiak kontzienteki eta zuzenki hartzeko bidea. AHT proiektuaren inguruan, lehendabizi ondo informatu behar da ingurumenean, nekazaritzan, bertako ekonomian, natur baliabideen ustiapenean... izango duen eraginez. Eta instituzioetatik garatzen ari den garraio ereduaz, lurralde antolakuntzaz eta azken finean garapen ereduari dagokionean, gizarte-etzabaida zabal eta sakon bat egin ondoren soilik, proiektu honi buruz erabakiak har ditzakegulako. Eztabaida honi praktikan ez zaio ekin, baina gure herrian egin beha-

rreko eztabaiden artean bizienetarikoa izan daitekeela ikusi da.

2. Jardunaldien balorazio baikorra egiten dugu. Jendearen erantzuna oso ona izan da. Herritar asko hurbildu da mahai-inguruetara kezkatu. Eskerrak eman nahi diegu besteak beste etorri diren hizlariari, auzoetako lanetan aritu diren eskualdeko euskarazko hiru komunikabideei eta diruz lagundu/ko duten udalari. Jardunaldiekin, AHTren egitasmoaren aurkako arrazoiak eta proiektuaren beharri buruzko eztabaida jendartean zabalteaz gain, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlana taldea kide berri gehiagorekin indartzea genuen helburu ere eta horrela izan da.

3. Bestalde, AHT-k dakarren gizarte ereduaz gogoeta egin da. Bestelako benetako garapen jasangarri baten alde gero eta gehiago garela eta gaur egungo garapen ereduaren sakoneko eraldaketaren inguruko beharra, sarri, hizpide izan da. Jasanezina dena jasangarri egiteko bidetik, Euskal Herriko administrazio desberdinek jo baitute. Abiadura Handiko Tren, Jaizkibelgo Superportua, autobideak, Itoizko urtegia, Baiona-Donostia eurorriaren

egitasmoa, errauskailuak, espazioaren metropolizazioa, merkataritza gune handien hedapen basatia... edota energia arloko proiektuak horren adibide argiak dira. Ildo honetan, AHT egitasmo honen inposizioa mozorrotu nahian, Jauriritzako Garraio Sailak, iritzi guztiz kontrajarriak sortzen dituen azpiegitura eraldoi bati, diru publikoarekin, EITBn abian duen iragarki maltzurra salatu da.

4. Abiadura Handiko Trena egitasmoaren egungo egoera aztertu da. Espainiako PPKo gobernuak, otsailean, Gipuzkoako Hernialde-Zizurkil, Zizurkil-Urnieta eta Urnieta-Hernani zatien lanak eman zituen. Orain PSOE da agintean eta honek prozedurak atzeratu egin ditu gaia aztertzeko. PSOEren aldetik ordea, aldaketa handirik ez da espero, berez proiektua PSOErena baita eta kontzibit behar dugu, Jauriritzaren presioak areagotu egingo baitira. Bestalde, Europar proiektu honetarako ez dago dirurik, oraingoz, beste lehentasunak daudelako. Beraz, AHTren proiektua une erabakigarrian dagoela azpimarratu da. Unea da gure ezetza agertzeko. AHT-ri emango zaion erantzun honetan jende guztiaren parte

hartzea beharrezkoa da. Azken batean, gizarte oposizio sendo batek baino ezingo baititu gure helburuak lortu: AHT gelditu! Inposaketarik ez!

Gogoeta honen bidetik, maiatzaren 31n, Tolosako Kultur Etxean, arratsaldeko 8etan, egingo dugun hurrengo bilera gonbidatzen zaituztegu.

TOLOSALDEKO AHT GELDITU!
ELKARLANA ▶ TOLOSA

Udal ordezkariak lapurtuta

Urtebete igaro da jada Espainiako Gobernuak Euskal Herriaren zati garrantzitsu bati bere ordezkariak hautatzeko eskubidea ukatu zionetik. Orduetik, 'demokraziaren izenean' ezarritako neurri horren kontrako kritika ugari entzun ditugun arren, agerian geratu da hitz polit horien guztien atzetik herri honetako 'abertzale' eta 'ezkerreko' alderdien benetako asmoak zeintzuk diren.

Bertako alderdi aurrerakoi eta subirotasun bidea eraikitzeari ekin zion mugimendua erabat baztertu eta deuseztatu arte zanpatzea; adibide gisa, beste batzuen artean herri ho-

nen aldeko borrokan jarduteagatik, erreprosoiak gogor kolpaturiko milaka gazte eta beste milaka egunero askapenaren alde lanean eta jardueretan jarraitzea mugatzen zaiena. Hau dena gutxi balitz, aipaturiko dena ahaztu, gertatu izan ez balitz bezala jokatu, eta herri honek bere bozka emanez benetan hautaturiko ordezkariak izango balira bezala azaltzen zaizkigu, independentzia, sozialismoa eta autodeterminazioa hitzak baliatuz.

Hau horrela, ez gaude batere ados herriak eman ez dizkien eserlekuetatik publikoki egin dituzten adierazpenekin.

Benetan gazteriarri dioten bultzada eta aldeko lana egiten hasi nahi badute, egin dezatela, inorri ezer lapurtu gabe!

Francoren garaietan ere, berak inposaturiko herri ordezkariak izaten genituen. Gaur Franco ez dago, baina Alderdi Legea dela medio antzeko papera jokatzeko dute udaletxetako eserlekuak okupatzu dabilten putreke, udal ordezkariak beraien artean zatitzeko pastel bat bezala banatzeko grinaz.

Zinegotzi lapurrak udaletxetik kanpora! Ez duzue Tolosako gazteria ordezkatzen.

TOLOSAKO SEGI ▶ TOLOSA

KULTURA ▶

IRATXE ETXEBESTE

Laskorain ikastolako abesbatzako talde bat Bartzelonako Vilafranca del Penedes herrian izan berri da bertako L'Espinguet abesbatzako kideekin. Abesbatza horretako lagunen etxeetan egon dira tolosarrak maiatzaren 13tik 16ra, eta, besteak beste, kontzertu bat eskaini zuten hilaren 14an bertako Auditorioan bi taldeek. Aisialdirako tartea ere izan zuten, eta Montjuic, Sagrada Familia edo Ramblak bisitatzeko aukera izan zuten abeslariak, Bartzelonan egun pasa egin zutelako.

Duela 11 urte sortu zen Laskorain ikastolako abesbatza eta egun 70 ikaslek osatzen dute Idoia Iraolaren gidaritzapean. Hiru taldetan daude banatuta ikastolako abeslariak: Laskorain gazte abesbatza (16 urtetik gorakoek osatzen dutena), Laskorain Txiki abesbatza (11-15 urtekoena) eta Laskorain Tipi abesbatza (8-10 urtekoek osatutakoa). Laskorain Txiki abesbatza izan da oraingoan Bartzelonara joan dena.

L'Espinguet taldea, berriz, orain 40 urte sortu zen eta 65 neska-mutilek hartzen dute parte gaur egun bertan. Lasko-

Bartzelonan izan dira Laskorain Txikikoak

Vilafranca del Penedes herriko L'Espinguet abesbatzakoekin aritu dira kantuan; bertako kideen etxeetan hartu dute ostatu



Laskorain ikastolako abesbatzakoek kontzertua eskaini zuten Vilafranca del Penedeseko auditorioan. HITZA

rainekoan antzera, hiru taldetan daude banatuta horiek ere 4 urtetik 16 urte bitarteko umeek eta gazteek osatzen dute. Tolosakoak nagusien taldeko kideekin egon dira.

Laskorain ikastolako abes-

batzako arduradunek adierazi dutenez, kultur ekintza hori «oso baikorra» izan da, partaideek kantuan jarraitzeko ilusioa eman dielako eta, bide batez, lagun eta leku berriak ezagutzeko baliagarri izan zaiela-

ko. Hurrena alderantziz egingo dute: Vilafranca del Penedeseko lagunak haien etxeetan hartuko dituzte Tolosakoak, izan ere. «Datorren ikasturtean izango da hori, baina abeslariak irrikaz dira dagoeneko».

PRESOAK ▶

Manifestazio isila Azkarate aske uztea eskatzeko

Manu Etxera plataformak deituta, manifestazio isila egingo dute bihar 19:30ean Trianguloan. Sindikatuek (ELA, LAB, EHNE eta CCOO), alderdi politikoek (EAJ, EA, EB-IU eta Tolosa Bizirik herri plataforma) eta Elkarri, Askatasuna, Etxerat eta Segi elkarteek babestu dute ekimena Manu Azkarate, Alcalako espetxean dagoen preso tolosarra aske utzi dezaten eskatzeko. Joan den urtarrilaren 14tik dago kartzelan gaitasun larri batekin; orain hamabi urte, 92. artikulua aplikatuta aske utzi zuteneko gaitz bera du egun.



Manu Azkarate tolosarra. HITZA

VILLABONA ▶ KULTURA

Muñoz tolosarrak jaso zuen amodiozko gutunen saria

Billabonatar onenaren saria Esti Amenabarrok jaso zuen herenengun



Ainara Muñozek, berak idatzitako gutuna irakurri zuen. G. AZKUE

GARAZI AZKUE

Hogeita lau gutun aurkeztu dituzte aurten Amasa-Villabona Amodiozko gutunen lehiaketara, horietatik lau amasarrek edota billabonatarrek izan dira. Manuel Larramendi kultur bazkunaren eta Villabonako Udalaren artean kudeatu dute, bigarren urtez sari hau.

Larramendiko lehendakaria Jon Unanueren esanetan, «amodiozko gutun hauena, literaturaren beste alor bat da».

Epaimahaiari dagokionez, Juan Krux Igerabide eta Karlos Linazasoro idazleek, Arantxa Urkizu Larramendiko kideak eta Karlos Zabala Udaleko zi-

negotziak osatu zuten, hauek hautatu zituzten gutun irabazleak.

Lehenengo bi sarien irabazleak eta billabonatar onenaren saritua bildu ziren Villabonako udaletxeko batzar aretoan, beste hainbat ikusleren artean. Lehenengo saria, Tolosako Ainara Muñozek eskuratu zuen, *Krispeta mezularia* lanarekin. Bigarren saria, berriz, Debara joan zen, *Ene txiki* gutunaren idazlea Zigor Agirrek eskuratu zuen. Eta hirugarren saria, amasar edo billabonatar onenarentzat izan zen; Esti Amenabarrok billabonatarrek jaso zuen, *Biok gure bakardean* lanarekin.

‘Krispeta mezularia’

Ainara Muñoz ▶ «Euskaraz ala ingelesez? Hori izan da lehenengo zalantza. Bai Mikel, badakit ingelesez idatziko banizu guztiz zoriontsu egingo zintudala, baina saiakera pare baten ondoren gure ama hizkuntza nahiago dudala uste dut.

Ostegunero bezala, zirt eta zart jeiki naiz goizeko zapitan; prestatu, gosaldu, aioooooo amaaaa!!! Hantxe exeri

naiz hirugarren ilarako eserlekuan eta zure zai geratu naiz. Bost minutu pasa dira zu atetik sartu arte, eneeee bost ordu izan dira. Bitartean zein irribarre eskeiniko dizudan saioak egiten aritu naiz, beharbada ez zara oso umoretsu etorriko baina jakin, nere irribarre goxoen eskaintzen dizudala egunero. Bapatean kanpoan zain egoten diren erretzaile amorratuak...» ◀

VILLABONA ▶

Egitarauaren azala hautatzeko lehiaketa

Ekainaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira lanak; 300 euroko saria izango da

G. AZKUE

Jaietan banatzen den egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa plazaratu du Villabonako Udalak. 2004ko Santio jaiak izango duten aurpegi hautatuko dute, beraz, lehiaketa honekin.

Lehiaketako gaia, Villabonako jaiak izango da, eta, «Villabona, Santio Jaiak, Uztaila 2004» testuak agertu behar du aurkeztutako lanean. Villabonako edozeinek har dezake parte lehiaketa honetan. Lanaren nolakoa bakoitzak aukeratuakoa izango da, hau da, pintura, argazkia, collagea... aurkeztu daitezke, bakoitzak nahi duena.

Lanak, 18x24cm-ko gutxieneko formatoa izan behar du onartua izateko, eta lanaren beste betebeharra, inoiz argitaratu gabeak izatea da.

Epaimahaiak 300 euroko sari bakarra emango du lan hautatuarentzat.

Aurkeztu beharreko azal guztiak ekainaren 25a baino lehen utzi behar dira Villabonako Udal Bulegoetan.

www.tolosaldekohitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

LS La Salle Berrozpe ikastetxea
ANDOAIN La salle etorbidea, 5
www.lasalleberrozpe.com

“ATEAK ZABALIK”

Zatoz gure Batxilergoak eta Heziketa Zikloak ezagutzera!

MAIATZAREN 25an ASTEARTEA
16:30 – 19:30

943 590 557

ENETEL **EUROKID** **ER** **FRANCOIS**



Sükrü Karakusen erakusketa inauguratuta

ZIZURKIL ▶ Herenegun iluntzean inauguratu zuten, Maiatzaren Saltsanen baitan, erakusgai egongo den bigarren erakusketa, Sükrü Karakusena. Jende asko inguratu zen

Atxulondo kultur etxera margolari turkiarren lanak ikustera. Janari turkiarra banatu zuten bertaratu ziren guztientzat. Erakusketa maiatzaren 31 arte egongo da irekita. G. AZKUE

GUTUN@K ✉

Eskubideak errespetatzen ez direlako

Dakizuen bezala urte honetan zehar ugariak izan dira EAJ-EAk Anoetako Udaletik darman jarrera eta jokabidearen aurrean era batera edo bestera beren ezadostasuna azaldu duten herritar eta eragileak. Eragile zein herritar hauek gauza bakarra dute helburu, Anoetarrok Udalaren partetik jasaten dugun eskubide urraketa salatzea eta Anoetak bizi duen egoera antidemokrati-koa gainditzeko bide bat irekitzea.

Herriko festak gainean ditugula jakinik, iritzi, pentsakera nahiz eragile ezberdinetako anoetarrak bildu eta udalaren jarrera baztertzaila ikusirik aurtengo festak ez direla anoetar guztiontzat izango iritzi dugu. Egoera honen aurrean anoetar guztiontzat festak antolatatu ditugu Udaletik kanpo, festa alternatiboak.

Festa alternatiboen ideiak herritarren partetik babes zabala lortu du eta egitarau txukun bat antolatzeaz gain beste gauza garrantzitsu bat lortu du, anoetarrak herriko festa alternatiboetan parte-hartzaile zuzenak izatea.

Gauzak honela, egitaraua osatu ondoren eta herritarren laguntza eta gogoia ikusirik festa alternatiboen batzordetik anoetarrek antolatutako ekin-tzak aurrera eramateko lekua behar genuen. Bestetik, festetan txosna jartzeko asmoa zuten eragileek festa alternatibo-ideiarekin bat zetozenez, festa alternatiboen gunea txosnagunean jartzea onetsi genuen, lekurik egokiena frontoi ondoko futbol zelaia iruditu zitzaigularik.

Eskakizun honekin zuzendu ginen Udalarengana duela bi hilabete inguru eta baiezkoa eman ziguten aurreneko bi bil-leretan. Orain festak hasteko bi aste falta direla, iritzi aldatu eta Arkupe atzeko kale estu horretara edo Idiakaitz auzora joateko bide berri horretara (tren estazio atzean) bidali nahi gaituzte. Gazte Asanbaladaren karpa eta beste bost txosnekin batera. Guzti honen arrazoia, guk eskatutako lekuan haurrentzako barrakak jarri nahi omen dituzte.

Udalak emaniko ezusteko

erantzun honen aurrean gure ezadostasuna azaldu genien izan ere beraiek eskainitako lekuak oso txikia izateaz gain etorriko den jende mordoarentzat eta antolatutako ekin-tzak aurrera eramateko, Udalak emaniko arrazoia ez deritzogu tajuzkoa denik. Besteak beste hainbat urtetan ipini dituztelako barrakak Arkupe atzeko kalean eta ez delako inongo arazorik egon. Horrez gain oraindik ez dutenez barrakekin hitzegin leku horretara moldatzen direnak eska ditzaizkete.

Gainera hainbeste anoetarrok gai honetan jarritako gogo eta ilusioz anoetarrentzat antolatutako festak izanik, ez deritzogu bidezkoa denik inongo tajuzko arrazoirik gabe frontoi ondoko futbol zelaia ukatzea; anoetarrak garen momentutik herriko instalazio ezberdinak erabiltzeko eskubidea dugula iruditzen baitzagu. Baina Fidelekin eskubideei buruz hitzeginen hastera ere... dagoeneko hainbeste zapaldu dizkigunear.

Gauza ez da hemen bukatzen. Txosnak bertan jartzea debekatzeko nahikoa ez baltz, orain festa alternatibo-egitaraua aurrera eramateko herriko plaza erabiltzea ere debekatu egin digute. Ez dakigu martxa honetan nora iritsiko den Anoetako herria... baina ziur leku onera ezetz.

Festa alternatibo-egitaraua osatzen dugun eragile zein herritarrok, gogor salatzen dugu Udalaren erabaki hau, ez baitugu inolako dudarik erabaki honen helburua anoetar askok herritarrentzat antolatutako jai herritarrei presentzia murrirtea eta baztertzeko dela.

Guk, gure partetik, oraindik jaien kokalekua ziur jakin ez arren, Udalak jarriko dituen oztipo eta zailtasun guztien gainetik, aurtengo festa alternatiboetan antolakuntzan buru belarri jarraituko dugula argi utzi nahi dugu eta herritar oro gonbidatu nahi dugu anoetarrok bizi dugun eskubide zapalketa eta bazteketa-aren aurrean beraien ezadostasuna azaltzera. Eta zein modu ego-kiagoa festa alternatibo-ekin-tzetan parte hartzea baino. Bazterketarik ez! Anoetarren eskubideak errespetatu! Festa alternatiboak aurrera!

FESTA ALTERNATIBOEN BATZORDEA ▶ ANOETA

ANOETA ▶ GAZTETXEA

Afaria, antzerkia eta kontzertua izango dira Gaztetxean

Gazte Asanbladako kideek 'Pusketaka' antzezlanaren eskainiko dute; ondoren, Nekin eta Izeba Pilarren ilobak



Atzo arratsaldean txupinazoa botaz hasi ziren ekitaldiak. D. GIBELALDE

ERREDAKZIOA

Anoetako Gaztetxeak bost urte bete dituela eta, ekitaldi ugari izango dira aste honetan zehar. Atzo arratsaldean hasi zen egitaraua txupinazoa botaz. Ondoren Gazte Asanbladaren

logo berriarekin mural bat margotu zuten Goikoetxea tabernaren ondoko paretean. Trikipoteoa ere izan zen Leire Zumeta eta Igor Urkola trikitilari gazteekin eta afal aurretik sagardo dastaketa izan zuten Gaztetxean. Afariaren ondoren

4 izal eta Surfin kaos musika taldeen kontzertua izan zuten Gaztetxean bertan.

Gaur izango dira egitarauko ekitaldi gehienak egun osoan zehar. Eguerdian tortila txapelketa hasiko da eta ondoren markarroi jatea egingo dute. 19:00etan trikipoteoa izango da Beñat Luluaga eta Aratz Luis trikitilariekin eta 20:00etan afaria Gaztetxean. Ondoren, 22:30ean, Joana Garmendiak zuzendurik eta Gazte Asanbladako kideen eskutik, *Pusketaka* izeneko antzerki emanaldia izango dute Gaztetxean. Bukartzeko, 23:30ean kontzertua izango da bi talderekin: Nekin eta Izeba Pilarren ilobak. Gaur zehar Txirrisklas izango da joaten diren guztiontzat.

Bihar bukatuko dira V. urte mugako ekitaldiak, arratsaldeko lauetatik aurrera Gaztetxean egingo den mus txapelketa-rekin.



Emakumeak antzerkian

BIDEGOIAN ▶ Emakumeen Jardunaldien barruan, atzo antzerki saioa izan zuten. Teresa Lopez de Muniain aktoreak *Ugaztun baten nahiak* bakarrizketa eskaini zuen. Bildu zirenak —emakumeak denak— gustura egon ziren, irribarrez jarraituz aktorearen ateraldiak eta mugimenduak. Jardunaldiak bukatzeko, afaria egin zuten atzo Kontzejuan. J. SAIZAR

KIROLA ▶

Eskualdeko 18 partaide Aizkorriko maratoian

ERREDAKZIOA

Biharko III. Zegama-Aizkorri mendi maratoian Tolosaldeko 18 korrikalari izango dira: Tolosako lau, Zizurkilgo hiru, Berastegiko hiru, Ibarako bi eta Amezketako, Amasa, Alegia, Asteasu, Irura eta Villabonako bana. Duela bi urte irabazi eta ia bigarren gelditu zen Juan Martin Tolosak ez du parte hartuko.

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818 Toki aproposa iragartzeko
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

psikologia
psikomotrizitatea

- Psikomotrizitate atzerapena
- Portaeraren aldaketa
- Blokeo emozionala
- Arreta zailtasunak
- Hiperaktibitatea eta inhibizioa

P. Gorosabel, 40-1B
TOLOSA • 943 69 82 65
mug.: 626 176 522

IBARRA ▶ JAIK

San Bartolomeko jaietarako bozeto lehiaketaren oinarriak aurkeztu dituzte dagoeneko

Haur eta helduek ekainaren 14a arte dute epea lanak emateko; 'San Bartolome Festak' lema eta Ibarako armarría jartzeko lekua izan beharko dute derrigor

DANI GIBELALDE

San Bartolome jaien egitarau-rako bozeto lehiaketaren oinarriak aurkeztu dituzte haur eta helduentzat. Lehiaketaren helburua, aurkeztutako marrazkien artean 2004ko jaien egitaraurako marrazkiak aukeratzea da. Gaia librea da.

Haurren lehiaketan, Ibaran bizi edota ikasten duten haur guztiek eman ahal izango dute izena. Lanak elaborazio teknika librearekin aurkeztu ahal

izango dira. Marrazkien formatoa folio neurrikoa izango da, eta horien antolaketa bertikala izan beharko du. Aurkeztutako lanek *San Bartolome Jaiak 2004* adierazpena eta Ibarako armarría (edo berau jartzeko tokia) izan beharko dute derri-gorrez.

Lanek egilearen izenik edota adierazpenik ez dute izango. Bozetoan gutun-azal itxian egilearen izen-abizenak, helbidea, telefonoa, jaiotze data, ikastetxea eta kurtsoko datuak

ipini behar dira, eta ekainaren 14a baino lehen Benito Izagirre kultur etxera eraman. Epaimahaia honako hauek osatuko dute: Ibarako Uzturpe ikastolaren zuzendariak, eta Kultura nahiz Euskara batzordeburuek. Lehiaketaren emaitzak ekainean jakinaraziko dira, eta irabazleei alde zuretik abisatuko zaie.

Helduen bozeto lehiaketari dagokionez, 18 urtetik gorako ibarbarrek parte hartu ahal izango dute. Lanak A4 forma-

tuan aurkeztu behar dira, edozein modalitatetan (argazkiak, marrazkiak, pintura, eta abar). Gaia librea izango da, eta irabazleak 120 euroko saria jasoko du. Era beran, Udalak irabazitako lanaren jabetza izango du. Haurren kasuan bezala, aurkeztu diren lanetan honako lema derrigorrezkoa izango da: *San Bartolome Festak 2004*, Ibarako armarría jartzeko lekuarekin. Lanak aurkezteko epea helduentzat berbera da: ekainak 14.

LEABURU ▶

HZ-ko taldearen hitzaldia gaur gazte gelan

Herritarren Zerrenda (HZ) talde politikoaren hitzaldia izango da gaur Leaburuko gazte gelan, 16:30etik aurrera. Antolatzaileek hitzaldira agertzeko dei egin diete herritarrei, bilkura «garrantzitsua» izango delako.

BERASTEGI ▶

Frontenis txapelketa herrikoia

Frontenis txapelketa herrikoia antolatu du Urepele elkarteko kirol taldeak. Txapelketan, herriko emakume nahiz gizonezkoen bikoteek parte hartu ahal izango dute. Hilabete amaiera arte dago zabalik izen-ematea. Bestalde, podologoaren bisita izango da gaur Gaztainondon.

ELDUAIN ▶ SAN ISIDRO EGUNA

Giro onean ospatu zuten herritarrek San Isidro eguna joan den igandean

Arrakastatsua suertatu zen Hernaniko Iraulio Panttalone bertso eskolako ikuskizuna

DANI GIBELALDE

Giro onean ospatu zuten igandean elduaindarrek San Isidro eguna, baserritarren egun handia. Berez, larunbatean izan zen San Isidro eguna, eta egun horretan izan ziren bailaran ekitaldirik gehienak. Hala ere, Elduaingo herritarrek egun hori Izaskunen bazkalduz ospatzen dutela jakinda, iganderako utzi zuten jaia.

Igandeko bazkarian 39 bat lagun izan ziren; besteak beste, bertan izan ziren Iraulio Panttalone Hernaniko bertso esko-

lako lagunak, 13 orotara. Arratsaldean, Hernaniko bertso eskolakoek antzerkia egin zuten; umoretsu, artzantzaren inguruko gaiak jorratu zituzten esketx ugariarekin. Gazta mota desberdinak mahai batean jarrita, bertsoan aritu ziren Iraulio Panttalone eskolakoak, bakarren bat ardiz jantzita eta guzti.

Beste herri askotan arrakastatsua izan zuten bertso eskolakoek ikuskizunak, eta ez zen gutxiago gertatu Elduainen. Gogotik gozatu zuten herritarrek.



Hernaniko Iraulio Panttalone antzerki eskolakoek saioko une bat, joan den igandean. HITZA

IRAGARKI LABURRAK ▶

Administrari laguntzailea. Plaza libreak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Hurrengo inkomporazioak; Zarautz, Hernani, Beasain, Berrobi, Irun, Erreterria, Bergara eta Oñati. Doako informazioa: 943 444509.
Harreragile-telefonista. Plaza libreak Eusko Jaurlaritzan eta

udaletan. Hurrengo inkomporazioak: Hernani, Aretxabaleta. Doako informazioa: 943 444509.

Ezindua. Zure ezintasuna %33tik gorakoa bada, aprobexa ezazu aukera. Lortu lanpostua udal eta Eusko Jaurlaritzan. Deituiguzu. Doako informazioa: 943 444509.

Mantenimendua. Lorazainak,

garbitzaileak, peoiak, lanpostu libreak: udaletan, Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 444509.

Basozainak. 17 plazako eskaintza. Lan egin gustuko duzun horretan. Lortu lanpostua naturarekin bat eginez lan egin ahal izateko. Doako informazioa: 943 444509.

Gidariak. Plaza libreak udaletan,

Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 444509.

Udaltzaintza. 43 plaza libre. Hurrengo inkomporazioak: Hondarribia, Hernani, Usurbil, Irun, Arrasate, Beasain, Ordizia, Oñati, Azkoitia, Erreterria, Zumarraga. Doako informazioa: 943 444509.

Gizarte langilea. Hurrengo inkomporazioak: Beasain, Berrobi, Itsasondo, Altzaga. Udaletan eta Foru Aldundian. Doako informazioa: 943 444509.

Bigarren Hezkuntza. Haur Hezkuntza. Plaza libreak. Deituiguzu eta lagunduko dizugu. Doako informazioa: 943 444509.

KULTURA ▶

Musikako ikasleek kontzertu erraldoiak emanen dituzte

Mendialdeko bost institututako seihun ikaslek baino gehiagok parte hartuko dute herrietako emanaldietan

JAIONE ASTIBIA

Astelehenean, hilak 24, hasi eta hurrengo egunetan, asteazkenean izan ezik, Nafarroako mendialdeko bost institututako musikako ikasleek kontzertuak eskainiko dituzte egitasmo horren partaide diren herrietan eta denak elkarrekin.

Proiektu horretan sartuta dago hain zuen ere Leitzako Amazabal Institutua, Altsasuko San Migel, Berako Toki Ona, Leizarozkoa eta Doneztebeko Mendaur ikastetxeekin batera. Orohar 617 ikasle musikari ariko dira lanean. Inigo Aldunate, Joxean Zabalo, Mirari Teiletxea, Pello Gorrotxategi eta Aitor Larrañaga eta Iñaki Otaño beren irakasleekin batera.

Egitasmo hau duela lau urte

jarri zen abian, hain zuzen ere, kurtsoan zehar musikako klaseetan ikasleek ikasitakoa herrietan ere ikus zedin eta noski ikasleek beren trebeziak erakusteko aukera izan zezaten eta noski «heziketaren atal garrantzitsu modura, horien antolaketan ere parte izanik, ardurak hartzea eta elkarlana bultzatzea ditu ezaugarri», dio Aldunate Amazabal Institutuko musikako irakasleak. Asmo horrekin aipatu ikastetxeetako irakasleak elkartu eta bideratu zituzten kontzertu hauek.

Seihun musikari

Hasieran hiru baziren ere, gero Altsasu eta Berakoak elkartu zitzaizkien. Guztietan, lantzen dituzten musika tres-

nak beretsuak dira. Txirularen aritzen dira gehien, baina laminak (xilofonoa), tronpeta, saxofoia, zeharreko xirula, pianoa eta beste hainbat tresna jotzen ere ikasten dute. Beraz ikasle guztiak elkartu eta, oso orkestra oparoak eratzten dituzte, kopuruz ez ezik soinuz ere.

Kontzertuak emateko garaian, aurtun, ikasleak banatu egingen dira, hainbeste izanik denak elkarrekin bildu eta batera emateko, zailtasunak baitituzte, leku asko behar dutelako. «Nahiz eta herri guztietara, bost ikastetxeetako ikasleak joan diren, ez dira guztiak hurbilduko. Lanak banatu eta mailaka egingen dugu, herri bakoitzeko lekuen arabera».

Kontzertu hauek prestatzeko

asteen pare bat aldiz elkartzen omen dira atsedendietan eta egunean bertan, goiza aprobetxatzen omen dute entsegu orokorra egiteko «ikasurtean zehar lana egin eta gero horrekin nahikoa da».

Leitzan hurrengo asteartean eskainiko dute kontzertua, arratsaldeko 17:30etik aurrera, Amazabal pilota lekuan be-
rean.

Zinema musika

Aurtengo emanaldietarako zinema musikari buruzko errepertorioa prestatu dute ikasleek. Besteak beste *Misioa*, *Titanic* moduko filmetako doinuak izanen dira entzungai. Dena den euskal musikak ere bere txokoa izanen du Laboaren *Baga biga higa* eta Ilarramendiren beste bi doinu ere joko baitituzte, hauek ere euskal zinemagintzan erabilitako musika izaki.

Beste herrietara joateko garaian, irakasle talde baten laguntza ere izaten dute eta autobusez egiten dituzte joan-etorriak. Antolaketa honi guztiari ekonomikoki aurre egiten Guraso Elkarrekin laguntzen omen diete eta herri erakundeetatik ere jasotzen omen dute. Gainerakoa ikasleek beraiek ordaintzen dute.



Herritarren Zerrendaren aurkezpena

LEITZA ▶ Herritarren Zerrenda-ren aurkezpena burutu zen aurreko ostegunean Aurrera elkartean. Hizlari modura Arantxa Santesteban aritu zen bertaratu ziren 30 lagunaren aurrean. HZko kide horrek Europarako

dituzten egitasmoen berri eman zuen eta baita, ilegalizazioa dela eta ez dela, egunez egun aldatu doan egoerarena ere. Honen ildotik larunbatean burutu asmo duten batzar nazionalerako deialdia egin zuen. J. ASTIBIA

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun zentroa.: 653212

Anoetaidea. Medikua: 652339

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx: 672411

Ikaztegjeta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa:

69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald:461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aitzondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxis: 67 04 20

▶ Taxis (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Iturrioz. Euskal Herria, 3.

(Ibarra).943 67 09 15

O. Erbiti. Lizarraga (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona_aitzondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoetaidea. 687 41 00 22

anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Taberna. Oresako taberna

alokatzen da. 943 682029.

Etxebizitza. Ingeles familia

batek etxebizitza bat behar du

alokairuan. Abuzturako; Tolosan

edo Ibarren. 943 670052 / 943

671275.

Zakurkumeak. Setter arrazako

zakurkumeak salgai. 943

674556 (20:00-22:00).

KIROLA ▶

Plazako pilota txapelketan izena emateko azken eguna

JAIONE ASTIBIA

Udaro, Leitzako plazan jokatzen den eskuz binakako txapelketan parte hartu nahi duten bikoteek, gaur dute izena emateko azken eguna, zehazki iluntzeko 20:00ak baino lehen egin behar dute hori. Plaza auto-eskolako bulegoetan. Izena ematerakoan, bikoteko hamabost euro ordaindu behar dira. Txapelketa hau hamabost urtez goikoentzat bideratuta dago.

Duela hamabi urte hasi zen Aurrera K.E. txapelketa hau antolatzen eta urtez urte parte-hartzea handia izan da eta mantendu ere egin da. Pilota partiduak larunbatetan jokatu dira, behin izena emateko epea bukatuta, egokituko den egitarauaren arabera. Ordutegiak ere orduan zehaztu dituzte antolatzaileek.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko maiatzaren 22a, larunbata ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alzo, Amesketa, Anoeta, Balarriaran, Berastegi, Eduain, Herrialde, Iturriz, Iruia, Larrain, Luchana, Lizartza, Orendain, Orosa, Tolosa, Villabona, Zuzkili

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jauriaritza. Kultura Saila

EUROPEAN UNION

GAURKO EGURALDIA

goizez arratsaldez berceña 18 hotzena 12

BIHARKO EGURALDIA

goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Elizabarrutiko Gaixoen Lourdeserako erromesaldiari jarraiki, parrokiak autobus bidaia antolatuta du Lourdesera. Denboraldi amaierako afaria eta zahagi ardoa.

Alegia. Denboraldi amaierako afaria egingo dute Intxurre Futbol taldeko jokalariek 20:30ean herriko plazan.

Aurretik, ohi bezala, zahagi ardoa izango da herritarrentzat.

Amezketeta. Buruntzuzingo mendi aterpeko urteko batzarra bazkide guztientzat. 10:00etan, Buruntzuzingo mendi aterpean.

Anoeta. Gazte Asanbladaren V. urtemuga: tortila lehiaketa 12:00etan, ondoren makarroi jatea, lau t'erdiko pilota txapelketa 17:00etan, ondoren trikipoteoa, Gazte Asanbladako antzerkia 23:00etan eta jarraian Nekin eta Izeba Pilarren ilobak taldeen kontzertua.

Tolosa. Manu Azkarate aske uzteko eskatzeko, manifestazio isila. Bihar, 19:30etik aurrera, Triangulotik.


Tolosa. Zeinu hizkuntza tailerra Gaintzen elkarteak antolatuta, 16:00etan Beotibarren.
Zizurkil. Marokoar afaria Atkulondo tabernan eta ondoren, Bouhia taldea, musika berbere eta dantza egiptoarra eskainiz. Maiatza saltsan ekitaldien baitan.

KULTUR ASTEAK

Albiztur. Bertso afaria Arkaitz Elkartearen 20:30etik aurrera: Anjel Mari Peñagarikano eta Maialen Lujanbio.

Iruira. Pilota Eskolako arteko xare txapelketako finalak 12:00etan; 16:30ean taberna eta elkartearen mus txapelketaren finalerdiak eta finala Trinketearen ordu berean xare partidak haur eta gazteboentzat eta 18:30ean Gaixotzea ez da txanba lana. *Entzunez eta kantatuz gozatzeko berriketan* ekitaldia Gazte Alaiak elkartearen 21:00etan. Txartela: 15 euro.

Leitza. 09:00etan mendi ibilaldia eta 22:00etan piano kontzertua: Ainara Roda, Silvia Sukunza eta Marian Marquez.



XIV Orduak Bermudezen

TOLOSA ▶ Joan zen igandeko XIV Orduko Ibilaldia pasatu zen, baina oraindik zeresan ugari ematen ari da eskualdean. Argazkian, egun hauetarako Bermudez frutadendan jarri duten erakusleho berezia ikus daiteke. Ibilaldiko argazki zaharrak, ibilbidea, aholkuak, bastoiak eta bestelakoak ikus daitezke. J.SAIZAR

MUSIKA

Tolosa. Hodeiertz eta Kanta Cantemus abesbatzak Santa Klara komentuan 20:30ean.
Tolosa. Nueva Vulcano eta R, 22:30ean Bonbernean.
Tolosa. Disko-festa. 22:00etan gauerdira, Ferialekuan.

TOLOSA KUP FESTA

Tolosa. 11:00etan Ibarra-Tolosa partidua Berazubín. Ondoren, kalejira eta poteoa Alde Zaharrera. 14:00etan herri bazkaria Plaza Berrian. Arratsaldean, bertako karpan eta Abastosen DJ King, DJ Iñaki, DJ Haro... 20:00etan Funky Kabrones taldea, 22:30ean THC eta Rudo & Friends taldeak. 03:00etatik 07:00etara Ferialekuan, Nomaklimato DJ+Performance eta Sex & Zen+Bass Herri.

ZINEMA

Tolosa. *Giro inesperado.* 19:30etan eta 22:30ean Leidorren.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Rita Ara (Tolosa). Munduko amonarik onenari, 80 muxu handi!



URTE ASKOAN

Patxi Larreta. Gaur 94 urte. Miren, Leire, Mikel, Iñigo, Sonia, Silvia eta Hector biloben partetik muxu handi bat.



URTE ASKOAN

Ugaitz Egiguren (Bidegoian). Lehenengo jaunartzaeren besperan, zorianak familiaren, eta, balte ere, anaia Andoniaren partetik.



URTE ASKOAN

Inaxi eta Inaxio (Anoeta). Gaur 36 urte ezkondu zinetela. Zorionak etxekoan partetik, bereziki Olaia eta Joanen partetik.



URTE ASKOAN

Juan Joxe Nazabal Garmendia Aupa Balarriarri! Etxekoan partetik.

HITZA,
 zorion agurren tartea
 Mesedez,
 ekarri argazkia bi egun
 lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5
 behe - Tolosa)

BRONTXILLO

Harategia
 (Tolosan eta Villabonan)

ESKEINTZA BEREZIA: Maiatzaren 24tik maiatzaren 29ra

- Arkume izterra 5,95 €/kg.
- Arkume paletila 5,95 €/kg.
- Txerri azpizuna 5,95 €/kg.
- Txerri saiheskia 2,90 €/kg.
- Zainzuriak 'Cojonudos' (3 lata)..... 4,50 €.
- Jatorrizko izendapena duen Nafarroako ardoa (botila-kajako) 0,90 €.

Tel.: 943 65 20 47 • San Frantzisko, 25 (Tolosa) • Tel.: 943 69 69 28 • Santiago kalea, 2 (Villabona)